

Bigarren eskuko liburu azoka solidarioa Algortan

GETXO.- Uztailaren 12tik 14ra Bigarren Eskuko Liburu Azoka ospatuko da Algortako Biotz Alai plazan, bigarren urtez, Getxoko Liburutegi Zerbitzuak antolatuta. Hiru egunetan, bisitariek hainbat gaitako liburuak erosteko aukera izango du. Liburu guztiek, partikularrek liburutegiei emandakoak, prezio sinbolikoak izango dituzte, euro batean hasita eta, ohi bezala, bildutako dirua lankidetza-proiektu solidario batean erabiliko da. Aurten, Madagaskarreko lanbide-heziketako ikastetxe bat eraikitze erabiliko da. Azoka goizeko 12:00etatik 14:00etara eta 17:00etatik 21:00etara zabalduko da.

Oraingo honetan, 20.000 bat liburu salduko dira, udal liburutegiei emandakoak. Horiek guztiak banan-banan aztertzen dira, liburutegien bildumari zeintzuk gehitu dakizkiokeen erabakitze. Udal liburu-bildumara pasatzen ez diren hainbat liburu interesgarriak gerta daitezke publikoarentzat eta, hori dela eta, udal liburutegiek saltzea erabaki zuten.